

BILBOKO GAZTE PANELA 25/26

Gazteria eta Kirola Sailak, 2024ko Bilboko Gazte Paneleko gazteekin lankidetzan, **Bilboko Gazte Panelaren** hirugarren edizioa jarri du abian.

- **Zer da Bilboko Gazte Panela 25/26?** Hausnarketarako, elkarriketarako eta proposamenak eta ekimenak elkarrekin sortzeko gunea da eta Bilboko gazteek eta Udalak hartzen dute parte, udalak haien beharrei hobeto erantzuteko.
- **Helburuak:**
 - Udala gazteei hurbiltzea, bere eskumenak, antolaketa eta funtzionamendua hobeto ezagut ditzaten.
 - Gazteria Saileko Agenda zein den jakitea eta eztabaidatzea, eta gazteen eta udal-sailen arteko komunikazio-bide zuzenak sortzea.
 - Tokiko Agenda gazteen ikuspegitik hobetuko duten ekimenak eta proiektuak batera sortzeko prozesuak sustatzea.
- **Nor dago Bilboko Gazte Panela 25/26an?** 18 eta 30 urte bitarteko 24 gazte, Bilbon bizi direnak (3 gazte barruti bakoitzeko). Edizio honetan beste 4 gaztek ere parte hartuko dute, udalerrian diharduten gazteen elkarteek eta taldeek proposatuta. Hau da, guztira, 28 gaztek hartuko dute parte.
- **Zelan har dezaket parte Bilboko Gazte Panela 25/26an?** Gazteria eta Kirol Sailak 2025eko urtarrilaren 8tik 22ra bitartean jarriko du martxan izena emateko epea. Baldintzak betetzen dituzten pertsona inskribatuen artean, Gazteria eta Kirol Sailak, jarraitu nahi duten aurreko paneletako gazteekin batera, gainerako parte-hartzaileak hautatuko ditu, guztira 24 izan arte. Hautaketan hainbat irizpide hartuko dira kontuan panelisten artean ahalik eta aniztasun handiena lortzeko: erreferentziako barrutia, sexua (parekotasuna), adina, prestakuntza, gaur egungo jarduera, motibazioa eta abar. Hautatzen ez diren pertsonen artean, parte-hartzaileen poltsa bat sortuko da sor daitezkeen bajak betetzeko.
- **Zenbat denboraz funtzionatuko du panelaren edizio honek?** 2025eko otsailetik 2026ko maiatzera arte, fase hauekin:
 - 2025eko otsailetik ekainera: 4 saio presentzial

Helburua: panelistak Udalaren lan-sailetara, funtzionamendura eta antolamendura hurbiltzea, eta gazteei gehien interesatzen zaizkien proiektu estrategikoen berri ematea.

- 2025eko irailetik azarora: 3 saio presentzial eta, gutxienez, taldeko beste saio bat.

Panelistak, gehien interesatzen zaizkien udal-gaien arabera, 4 lantaldetan antolatuko dira, proiektu bat diseinatzeko. Udaleko langileen laguntza izango dute, proiektu bat egiten ikasiko dute, eta 2.000 € izango dituzte, eta La Perrera espazioak, aukeratu dutena garatzeko.

- 2026ko urtarriletik maiatzera: aurrez aurreko 3 saio eta, gutxienez, taldeko beste saio bi.

Proiektuak amaitzea eta panelean aurkeztea.

Aurrez aurreko saioak zapatu goizetan egiten dira (egutegia ezarri barik dago), 10:00etatik 13:00etara, La Perrera (Sabino Arana, 50).

- **Zer konpentsazio ekonomiko daude?**

- **Parte-hartzaileentzako diru-ordaina**

- i. 50 €, taldeko saio bakoitzean parte hartzeagatik.
- ii. Talde bakoitzak 250 € izango ditu parte-hartzaile bakoitzeko, eta taldeak erabakiko ditu zenbateko hori banatzeko irizpideak.

Pertsona bakoitzari dagokion zenbatekoa Gazteria eta Kirol Sailak ordainduko du, Panelaren azken saioa amaitu ondoren. Edozein kidek utzi ahal izango du Gazte Panela, bere borondatez (edo Gazteria eta Kirol Sailak eskatuta, ez baldin badu konpromiso sendoa erakusten Gazte Panelaren helburuekin). Kargua justifikaziorik gabe uzten badu, ez du inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

Aurrez aurreko saioen batera joaten ez bada, bertaratu ez den pertsonaren lantaldearen absentzia-poltsa komun baterako erabiliko da absentzia horri dagokion zenbatekoa, taldeak, Paneleko saioak amaitu ondoren, zenbateko horiek kideen artean nola banatu erabaki dezan.